

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2269

346/2023 EBAZPENA, apirilaren 26koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratu egiten den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorreko 2023ko martxoko zikloaren destinoen eskaintza, A1 Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Erradiodiagnostikoko Fakultatibo Espezialista medikoa kategoriarako / lanpostu funtzionalerako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren.

Aipatutako erabakiaren azken xedapenetako bigarrenak ezartzen duenez, erabakia garatzeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari eskumena ematen zaio beharrezko ebazpen edo instrukzioak eman ditzan, erabakia egoki eta zuzen aplikatu dadin Ente Publikoaren zerbitzu-erakunde guztietan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1307/2021 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorra egiteko deialdia egin zen A1 Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Erradiodiagnostikoko Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoriarako / lanpostu funtzionalerako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 4.2.1 apartatuan xedatutakoari jarraituz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko du destinoen eskaintza.

Azaldutako guztiaren ondorioz, eta langileen arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza A1 Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Erradiodiagnostikoko Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoriarako / lanpostu funtzionalerako, ebazpen honekin batera doan eranskinaren bidez.

Ebazpen honen bidez egiten den deialdiaren zikloan data hauek hartu dira erreferentziazat: 2023ko martxoaren 1a, eskainiko diren lanpostuak hautatzeko, eta 2023ko ekainaren 6a, eskakizunak betetzeko, merezimenduak alegatu eta baloratzeko, eta destinoa aukeratu edo aldatzeko.

Lehiakideek eskabidea aldatu ahalko dute, baita destinoen aukeraketa ere, 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren oinarrietan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren

urriaren 21eko 1307/2021 Ebazpenean araututakoari jarraiki, 2023ko ekainaren 6ra arte, 2023ko martxoko ziklo honi dagokionez.

Destinoen aukeraketa aldatzeko, Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorrean parte hartu ahal izateko gaitu den aplikazio informatikoa erabiliko da, eta ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu beharko.

2023ko martxoko ziklo honetan, 2023ko ekainaren 6ra arte egindako destino-aukeraketa hartuko da kontuan, aldez aurretik adierazitakoaren arabera.

2023ko martxoko ziklo honetan, prozesu orokorrean egindako eskabideak jasoko dira, baldin eta gutxienez zikloan eskainitako destinoren bat badute 2023ko ekainaren 6a amaitzen denean.

Bigarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutu sozialak ezartzekoa azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAA n argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 26a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA.

2023ko maiatzaren 16a, asteartea

ERANSKINA
DESTINOEN ZERRENDA
KATEGORIA: FAK. ESP. ERRADIADIAGNOSTIKOKO MEDIKUA
LANPOSTU FUNTZIONALA: FAK. ESP. ERRADIADIAGNOSTIKOKO MEDIKUA

Destino kop.	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa
2	Arabako ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Kanpo Kontsult Eraik, Vitoria-Vitoria-Gasteiz / Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
2	Barruaide-Galdakaoko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Galdakao-Usansoloko Ospitalea-Galdakao / Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin / 2HE-Data igarota
2	Barruaide-Galdakaoko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Galdakao-Usansoloko Ospitalea-Galdakao / Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Bidasoko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Bidasoko Ospitalea-Hondarribia / Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
2	Bilbao-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin / 2HE-Data igarota
1	Bilbao-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin / 2HE-Igaro gabeko data(2023-12-03)
4	Bilbao-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Igaro gabeko data(2023-12-03)
6	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea / 2 Txanda-Arratsaldez eta agenda irekia goizez-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Data igarota
3	Ezker.-Enkar. -Gurut. ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe

2023ko maiatzaren 16a, asteartea

Destino kop.	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa
1	Uribeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Guardiekin / 2HE-Data igarota
1	Uribeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Erradiodiagnostiko Unitatea-Erradiodiagnostiko Unitatea / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe